IRAGARKIA, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarena, luzatzen duena Euskal Autonomia Erkidegoko autonomia eta mendekotasunari arreta emateko sistemako zaintzaile, gerokultore eta etxez etxeko laguntzaileen kategorietan egiaztatuta ez dauden profesionalak ezohiko eran gaitzeko edo erregistratzeko epea 2016ko otsailaren 29ra arte.

Kontuan izanik ebazpen hau: 2015eko azaroaren 3ko Gizarte Zerbitzu eta Berdintasunerako Estatutako Idazkaritzaren ebazpena, gizarte-zerbitzuen eta autonomiarako eta mendekotasunari arreta emateko lurralde-kontseiluaren hitzarmena argitaratzen duena, eta hein berean, partzialki aldatzen duena autonomiarako eta mendekotasunari arreta emateko sistemako zentroak eta zerbitzuak egiaztatzeari buruzko 2008ko azaroaren 27ko hitzarmena zaintzaile, gerokultore eta etxez etxeko laguntzaileen kategorietan prestakuntza profesionalak egiaztatuta ez dituzten pertsonei dagokienez, beharrezkotzat jotzen da langile horiek identifikatzea, egoera ebaluatzeko helburuarekin eta sektoreko profesional guztien prestakuntzan aurrera egiteko xedearekin.

Aipatutako ebazpenaren arabera, ezohiko eran gaituko dira, autonomia-erkidegoaren baitan eta dagokien kategorian, 2015eko abenduaren 31n 55 urte edo 55 urtetik gora dituzten langileak, betiere, zaintzaile/gerokultore eta etxez etxeko laguntzaileen lanbide-kategorian jarduten badute eta, gutxienez, hiru urteko esperientzia dutela egiaztatzen badute, eta azken hamar urteetan lanbide-kategoria horietan 2.000 lan-ordu izan beharko dituzte gutxienez.

Mendekotasunaren arloko gainerako langileek ez badute eskatzen den egiaztagiri hori, autonomia-erkidegoak lan-esperientziaren bidez jasotako gaitasun profesionalak egiaztatzeko eta ebaluatzeko prozesuak egingo dituzte. 2017ko abenduaren 31ra arte, eta edozein kasutan, data horretan abiarazitako lan-esperientziei buruzko egiaztatze-prozesuak amaitu arte, egiaztatze ezak ez die inolako ondoriorik ekarriko prozesu horietan edo lanbide-profesional horietan jarduteko gaitasuna ematen duten prestakuntza-programa batean parte hartzen ari diren langileei, ezta arreta ematen duten enpresa edo erakundeei ere, eta era berean, ez die eragingo administrazio publikoei; horrela, sektoreko egonkortasuna bermatuko da.

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzaren iragarkiaren bidez, 2015eko abenduaren 22 eta 31 artean ireki zen epea Euskal Autonomia Erkidegoko autonomiarako eta mendekotasunari arreta emateko zaintzailearen, gerokultorearen eta etxez etxeko laguntzailearen kategorietan egiaztatuta ez dauden langileak ezohiko eran gaitzekoa edo erregistratzekoa.

Horrela, berehala identifikatu nahi ziren eskatzen den egiaztatzerik ez duten langileak zein diren eta detektatutako prestakuntza-beharra dela bide, laneko esperientziaren bidez jasotako gaitasun profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozesuak berehala programatu eta planifikatu nahi ziren. Hala ere, emandako epea ez da behar bestekoa izan egoera horretan dauden pertsona guztiek egiaztatu gabeko langile gisa ezohiko eran gaitzeko edo erregistratzeko. Horregatik, hasieran emandako epea luzatzea komeni dela uste dugu.

Adierazitakoarekin bat, egoera horietan dauden egiaztatu gabeko langileek kasu bakoitzean eskatu beharko dute autonomiarako eta mendekotasunari arreta emateko sisteman ezohiko eran gaitzea edo erregistratzea, iragarki honetako I. eranskinean dagoen eskaera-ereduaren arabera. Eskaera hori webgune honetan bete ahal izango da: (https://rlanbide.lanbide.net/ikaslan/pub/solRecExp.seam?idiomaPub=1&conv=1). Eskaera bete ondoren, egiaztagiri bat sortuko da PDF formatuan eta hori sinatu eta Eusko Jaurlaritzan aurkeztu beharko da eskabidean aurreikusitako moduren batean, 2016ko martxoaren 1a baino lehen.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urtarrilaren 27an.

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria,
EMILIO GERMÁN SOLA VALLOJERA.